

BERRIA

Larunbata, 2020ko irailaren 26a

Bizigiros 45
Dantza

Katalin Zarate Aiko taldeko dantza maisua, sakelako telefonoan, dantzen urratsak nola egiten diren azaltzen. AIKO

Aiko taldeak dantza eskola digitala jarriko du martxan urritik aurrera. Zuzeneko saioak, ikastaroak eta grabatutako materialak eskura izanen dituzte dantzazaleek.

Etxetik ere egin liteke dantza

Iker Tubia

Konfinamenduak erabat eten zituen jarduerak gehienak, baita dantzaren irakaskuntza ere. Etxean itxita, Sabin Bikandi Aiko taldeko dantza maisuak webcam piztu eta Aiko taldearen dantza ikasleek zuten hutsunea etxetik betetzea erabaki zuen. Berehala zabaldu ziren haren doinu eta urratsak sarean barrena, eta, ikasleak ez ezik, Euskal Herriko eta atzerriko dantzazale mordoak batu ziren Interneteko eskola inprobisatuetara. Konfinamendua igaro arren, dantzan aritzeko zailtasun eta oztopo anitz daude oraindik ere, eta, beraz, heldu den ikasturtean Internet izanen du lagun Aiko taldeak. Urrian abiatuko dute dantza eskola digitala.

Bi atal nagusi ditu egitasmoak: zuzeneko dantza eskolak eta autoikaskuntza bultzatzeko materiala. «Zuzeneko eskolak inportanteak dira guretzat, nolabait elkartzearen erituala irudikatzen dutelako; behintzat txaten bidez agurtu, topaketa bat izatea... nola edo hala hori mantentzen saiatu-

ko gara», azaldu du Bikandik. Noski, eskola horiek gero grabaturik geldituko dira, une oro eskuragarri egoteko. Bigarren atala autoikaskuntzarena da, norberak bere kasa urratsez urrats ikasi edo errepasadezan. Horretaz gain, eskola magistralak eta ikastaro monografikoak egingen dituzte.

Aikoren jarduna euskaraz izaten bada ere, zuzeneko eskolak hiru hizkuntzatan emanen dituzte: euskaraz, gaztelerez eta ingelesez. Itziar Villamandos Aiko taldeko komunikazio arduradunak eman ditu azalpenak: «Diaspora-

na ailegatu nahi dugu, baita Europako beste herrialde batzuetara ere. Sabin webcamarekin aritu zenean, Argentina, Danimarka eta Italiako jendea konektatzen zen». Dagoeneko harremanetan jarri dira, besteak beste, AEBetako Renoko unibertsitatearekin eta Boiseko Euskal Museoarekin.

Birusa, azkenengo bultzada
Aurretik ere bazuten proiektua buruan, baina pandemiak eman die azkenengo bultzada. «Aspaldi, Andra Mari dantza taldean geundenean, ikusten genuen ho-

relakoen beharra jotarekin ibiltzen ginenean. Dantza maisuok dantzan egiten den prozesu mentala irudikatze eta partekatze-ko beharriaz aspalditik ikusten genuen», kontatu du Bikandik. «Azken hiruzpalau urteetan argi ikusi genuen zer behar genuen: irudiak eta transkripzio erritmi-koak bat egiteko modua».

Orain, noski, egoerak bultzatu ditu proiektua lehenbailehen buru- eta kaleratzera. «Zuhur-jokatu nahi izan dugu, orain ezin baita elkarrekin dantzatu. Beraz, modu digitalan egitea erabaki

dugu», esan du Villamandosek. «Noski, saiatuko gara erromerietara itzultzen, eta posible denean, aurrez aurre egingo ditugu eskolak, baina eskola digitala osagarri izango da».



Aurrez aurre aritzen garenean ere, material osagarri hau ondo etorriko zaigu dantza inguruan gaudenoi»

Sabin Bikandi

Aiko taldeko dantza maisua

«Hiru hizkuntzatan, diasporara ailegatu nahi dugu, baita Europako beste herrialde batzuetara ere»

Itziar Villamandos

Aiko taldeko komunikazio arduraduna

Duela sei hamarkada Bizkaiko dantzei buruzko liburua argitaratu zuen Jose Luis Etxebarria Txelu dantza maisuak. Bertan, zehatz-mehatz azaltzen zituen mugimendu koreografikoak melodien erritmoei eta notei atxikirik. Horrelako zerbait egitea lortu du Aikok, baina bisuala eta erabilerraza, dantzaren partitura eta bideoa batera ageri baitira. Musika mantotu daiteke, bideoa ispilu bezala ikusi, edo partituraren edozein unetan klik eginda bideoak ere une horretara egiten du salto. «Txeluk guk ditugun baliabideak izan balitu, flipatuko zuen».

Dagoeneko dantza eskola birtualean izena emateko aukera dago aiko.eskola.eus webgunean, eta zenbait tokitan aurkezpenak egingen dituzte urrian. Deus ez dakitenei eta dantzan dakitenei zuzendutako ikasleak, eta materiala erabilgarria izanen dela ziurtatu du Bikandik. «Oso kontent gaudu; hau hasiera baino ez da: aurrez aurre aritzen garenean ere material osagarri hau ondo etorriko zaigu dantzaren inguruan gauden guztioi».

berria laguna

BITTOR.
BAR. EXPO
ZIBURU 05 59 47 45 88



KOPIAK+DISEINUA
FOTOCOPIAS DISEÑO GRÁFICO

INPRIMAKETAK • SERIGRAFIA • ROTULAZIOA
TRABAJOS DE IMPRENTA • SELLOS DE GOMA
BULEGOKO MATERIALA

T/F: 94 671 32 00

Juan XXIII plaza, 2 - 48480 ARRIGORRIAGA
email: di-da@outlook.es